

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2003ko EKAINA


## Euskal AEko industri jarduera %3,3 hazi zen 2003ko ekainean

**2003ko lehenengo seihilekoan Industri Produkzioaren Indize Orokorra %1,2 igo da.**

2003ko ekainean, %3,3 hazi zen Euskal AEko industri jarduera, 2002ko hil beraren aldean, 2003ak aurreko ekitaldiak baino lanegun bat gehiago izan duelako, EUSTATEk landutako datuen arabera. Datuak balio homogeneotan neurtu ahal izateko lan-egutegiaren eragina zuzenduta, ekaineko urte arteko tasak %0,5eko aldakuntza negatiboa agertzen du.

Datu horiekin, urteko lehenengo sei hilabeteetako tasa metatuak, aurreko urteko aldi beraren aldean, %1,2ko hazkundea izan du balio absolutuetan neurtuta, eta %1,0koa lan-egutegiaren balio homogeneotan neurtuta.

### Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2003



(\*) 2003ko ekaineko urte arteko hazkunde zuzendua

**Iturria: EUSTAT**

2003ko ekainean, urte arteko aldakuntzarik positiboenak, balio absolutotan, sektore hauei egokitu zaizkie: *petrolio finitza* (%37,9), *kautxua eta plastikoa* (%11,4), *zurgintza* (%6,6), *bestelako manufakturak* (%5,1) eta *ehungintza eta jantzigintza* (%5,0) arloei, besteak beste.

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan dituzte: *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-7,5), *larruaren eta oinetakoen industria* (%-7,3) eta *garraio-materiala* (%-1,0) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2003ko ekainean, igo egin dira, balio absolututan bitarteko ondasunen (%3,4) eta ekipo-ondasunen (%1,1) urte arteko tasak, baina jaitsi egin da kontsumo-ondasunen (%-0,3) tasa.

Urteko lehenengo sei hilabeteetako, hazkunde metatu handienak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zaizkie: *petrolio finntzea* (%13,6), *ehungintza eta jantzigintza* (%7,5), *kautxua eta plastikoa* (%6,9), *garraio-materiala* (%3,3) eta *metalezko eta ez-metalezko meak* (%3,2) arloei, besteak beste.

Tasa metaturik negatiboenak, berriz, honako hauek izan dituzte: *larruaren eta oinetakoen industria* (%-14,6), *bestelako manufakturak* (%-6,6), *elikagai-industria* (%-3,6) eta *metalurgia eta metalezko gauzak* (%-0,5) arloek, batik bat.

Lehenengo sei hilabeteetako aldakuntza metatuek, lan-egutegiaren eragina kontuan hartu gabe, honako datuak ematen dizkigute: bitarteko ondasunek (%2,1) eta ekipo-ondasunek (%0,2) hazkundeak izan dituzte, baina kontsumo-ondasunek %3,0ko jaitsiera izan dute.

Lurralde historikoka, lehenengo sei hilabeteetako joerak desberdintasunak agertzen ditu: Bizkaiak izan du hazkunde metaturik handiena (%1,9), Gipuzkoa tartean kokatu da (%1,0) eta azkenik, Araban produkzioa jaitsi egin da (%-0,1) aurreko urteko aldi beraren aldean.

**Taula: 2003ko EKAINA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasa (%)**

| Kontzeptua                                     | Aurreko urteko hil beraren aldean |             | 2002ko urtarril-ekaineko tasa metatua |             | 2003ko urtarril-ekaineko tasa metatua |             |
|------------------------------------------------|-----------------------------------|-------------|---------------------------------------|-------------|---------------------------------------|-------------|
|                                                | originala                         | zuzendua(*) | originala                             | zuzendua(*) | originala                             | zuzendua(*) |
| <b>Indize orokorra: Euskal AE</b>              | 3,3                               | -0,5        | -2,5                                  | -1,1        | 1,2                                   | 1,0         |
| Araba                                          | 1,5                               | -2,5        | -1,1                                  | 0,4         | -0,1                                  | -0,3        |
| Bizkaia                                        | 1,8                               | -1,8        | -2,4                                  | -1,1        | 1,9                                   | 1,8         |
| Gipuzkoa                                       | 6,0                               | 2,0         | -3,5                                  | -2,0        | 1,0                                   | 0,9         |
|                                                |                                   |             |                                       |             |                                       |             |
| <b>Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE</b> |                                   |             |                                       |             |                                       |             |
| Bitarteko ondasunak                            | 3,4                               | 0,1         | -2,3                                  | -1,1        | 2,1                                   | 1,9         |
| Kontsumo-ondasunak                             | -0,3                              | -4,4        | 0,8                                   | 2,5         | -3,0                                  | -3,2        |
| Ekipo-ondasunak                                | 1,1                               | -3,5        | -3,8                                  | -2,2        | 0,2                                   | 0,0         |

(\*) Lanegunez zuzendua.

**Iturria: EUSTAT**

**Argibide gehiagorako:**

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)